

2.MERKATU SEGMENTAZIOA



Gure produktua erabiliko duten erabiltzaile nagusiak jaietan dabilzaten gazteak dira, sare sozialen bidez gure produktuaren diseinu ezberdinak eta hortik erosteko aukera izango lukete bezeroek. Beraz gure bezero zuzena botilak garraiatzeko edozein pertsona izan daiteke, hori bai, alkohol botilak eta freskagarria garraiatzeko erabiliko dutenak nagusiki, haientzat bideratuta baitago. Beste alde batetik, herrietako supermerkatuei saltzea ere pentsatu dugu hauek bitartekari bezala funtzionatzeko, hauek gazteei salduko dietelako edaria erostera doazenean. Gainera zenbait enpresari salduko genioke eta haiek beraien bezeroei oparitu, Euskaltelek egiten duen moduan, zerbait erosten diezunean beste gauza bat oparitzen dizute.



Jaietan dagoen jendea izango denez gure erabiltzaile printzipala, merkatu handia da, gazte asko daudelako urtero jaietan erabiliko luketenak. Gehienetan, alkohola eramateko plastikozko poltsak erabiltzen dituzte, poltsa hauek, behin bakarrik erabiltzen eta gero botatzen dira, horrek ingurunean izugarrizko ondorio latzak dakartza, eta ez du aldaketa klimatikoa ekiditzen laguntzen. Gure produktuarekin denbora luzerako izango zenuke eta ez zenuke galduko, eskumuturrean eramateko aukera duzulako, erabiltzen ez diezunean botilak garraiatzeko.

2.MERKATU SEGMENTAZIOA



Gure produktua nitxo osatutako merkatuaren barruan dago, alkoholaren munduan haritzen den jendearentzako diseinatuta dagoelako espezifikoki. Argazki honetan argi ikus daiteke zein adinetako jendea kontsumitzen duen alkohol gehien.